

## GIPUZKOA INDUSTRIA 4.0: PRODUKTUEN ETA ZERBITZUEN GARAPENA

**XEDEA:** Fabrikazio aurreratuaren eta 4.0 industriaren merkatura zuzentzen diren produktu, teknologia edo aplikazio berriak garatzera zuzendutako proiektuak. Proiektuak garapen esperimentaleko kategorian sartuko dira, kontuan hartuta Europar Batzordeak definitzen duena, hain zuzen, diru laguntza programa honen araudiaren 1. oinarrian azaltzen dena.

### ONURADUNAK:

Egoitza soziala eta fiskala Gipuzkoan duten enpresa eta ondasun erkidego gipuzkoarrak.

Langile kopurua: gutxienez 10 pertsona lanaldi osoz, Oinarri Teknologikoko Enpresa Berrien kasuan izan ezik.

Programa honen ondorioetarako, Oinarri Teknologikoko Enpresa Berriak edo Enpresa Berritzaileak izango dira helbide soziala eta fiskala Gipuzkoan izanik 2 urte baino gehiago eta 5 urte baino gutxiago izateaz gain ondoko ezaugarrietako bat betetzen dituztenak:

- Administrazio publikoen laguntzen onuradun izatea NEBT gisa.
- Teknologia zentro baten edo unibertsitate baten ekimenez sortuak izatea.
- Arrisku kapitalen edo ale kapitalen lanabesen bidez finantzatuak izatea.

### PROIEKTUEN BALDINTZAK:

Hauekin lotutako produktu edo zerbitzuen garapena:

Negozio kudeaketa eta kontrola, eta negozio eredu berriak (serbituzazioa,...)

- Ekoizpen prozesuaren kudeaketa eta kontrola
- Bitarteko produktiboen garapena, Industria 4.0 produktuetarako
- Industria 4.0 produktuak.
- Konektagarritasuna eta mugikortasuna- Zibersegurtasuna- Big Data- Konputazioa eta lainoa- Errealitate handitua eta errealitate birtuala
- Robotika aurreratua- Low-end eta embedded sistema eta sentzore adimendunak- Ikusmen artifiziala, 3D ikuskapena eta neurtze aurreratua
- Fabrikazio gehigarria eta 3D inpresioa- Prozesuen eta produktuen trazabilitate teknologiak

Gastu lagungarriak: barruko langileria gastuak eta azpikontratazioak.

Proiektuak gutxienez 30.000 euro izango ditu diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontuan. Oinarri Teknologikoko Enpresa Berrien kasuan, gutxienerako zenbateko hori 15.000 euro izango da.

### DIRU LAGUNTZEN PORTZENTAJEAK ETA GEHIENEN ZENBATEKOAK:

Dirulaguntzaren zenbatekoa kostu hautagarrien % 25ekoa izango da, enpresa ertaina bada %35 eta enpresa txikia bada eta % 45, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 60.000€ izanik.

## ESKERAK AURKEZTEKO MODUA ETA EPEA:

Eskaerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aurkeztu eta hurrengo egunetik hasi eta **2019ko apirilaren 3an amaituko da**.

Deialdiari buruzko informazioa web orri honetan eskura daiteke: [www.gipuzkoa.eus/dirulaguntzak](http://www.gipuzkoa.eus/dirulaguntzak). Eskaera orria, deialdian itsatsi tako ereduari jarraituz, eta hari erantsi tako dokumentazioa, ahal dela, bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztu behar dira, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzen atarian: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/dirulaguntzak>. Deialdiaren informazioa web orri horretan dago eskuragarri.